

## 9 CANVAS KOSTU EGITURAK

Gure proiektuaren puntu garrantzitsuena gurekin aliantza egin nahi duen enpresa bat aurkitzea izango da. Batik bat gure proiektua aurrera atera ahal izateko garrantzitsua delako gurekin lan egin nahi duen jantzi enpresa bat aurkitzea.

Gure produktuen prezio aldakorra izango da, produktu ezberdinen artean balio diferentziak baitaude. Hala ere, alokatzerako orduan produktuaren prezioaren laurdena ordaindu beharko dute gure bezeroek; erosterako orduan, ordea, produktuaren berezko prezioari deskontu bat egingo diogu, gure bezeroen konfiantza lortu ahal izateko.

### DIRU-SARREREN eta GASTUEN AURREIKUSPENAK

Kontzeptuak	Urt	Ots	Mar	Apir	Mai	Eka	Guztira 2022
<b>Diru- sarrerak</b>							
Arropa salmentak	625,00	625,00	625,00	625,00	625,00	625,00	3.750,00
Arropen alokairua	500	500	500	500	500	500	3.250,00
Diru laguntzak	3.250,00						
<b>Sarrerak guztira</b>	<b>4.375,00</b>	<b>1.125,00</b>	<b>1.125,00</b>	<b>1.125,00</b>	<b>1.125,00</b>	<b>1.125,00</b>	<b>10.000,00</b>
<b>Gastuak</b>							
<b>Kostu Finkoak</b>	800,00	600,00	600,00	600,00	600,00	600,00	3.800,00
Alokairua	500,00	500,00	500,00	500,00	500,00	500,00	3.000,00
Argindarra eta ura	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	600,00
Dendaren diseinua	200,00						200,00
Sare sozialetako promozioa							0,00
<b>Kostu Aldakorrak</b>	1.250,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.250,00
Arropa erosketak	1.250,00						1.250,00
							0,00
							0,00
<b>Gastuak guztira</b>	<b>2.050,00</b>	<b>600,00</b>	<b>600,00</b>	<b>600,00</b>	<b>600,00</b>	<b>600,00</b>	<b>5.050,00</b>
<b>Mozkinak zergen aurretik</b>	<b>2.325,00</b>	<b>525,00</b>	<b>525,00</b>	<b>525,00</b>	<b>525,00</b>	<b>525,00</b>	<b>4.950,00</b>

Gure zerbitzuaren gastuak eta irabaziak kontutan hartuz hau izango litzateke gure zerbitzuaren lehenengo sei hilabeteetako aurreikuspena.

Diru-sarrerei dagokienez, informatu gara Eusko Jaurlaritzak ekintzaile berri gazteei ematen dizkien diru-laguntzez. Gazteak izateagatik (18-25) % 15 eta emakume izateagatik beste % 15 handitzen zen diru-laguntza. Arropa eta jostailuen salmentari dagokionez, bigarren eskuan jasotzen ditugunak salduko ditugu. Aurretik eginiko inkesta baten bidez donatzaile batzuk zihurtatu ditugu. Jostailuen kasuan, gure bezeroek emandakoak bakarrik jarriko ditugu salgai. Aldiz, jantziak donatuak eta guk erosiak izango dira. Erosten ditugun jantzi berriak ez ditugu zuzenean salduko, hasiera batean alokatu egingo ditugu eta gero, egoera onean badaude salduko ditugu bigarren eskuko arropa gisa. Honek arropak asko

aprobetxatzea ekartzen du eta gure bezeroentzako prezioak merketzea ere bai, kalitatea eta prezioa parekatuz, haiek inkestan eskatzen zuten moduan.

Lehen aipatu moduan, "Bask" markarekin egingo dugu "Joint Venture" bat haurrentzako arropa modu jasangarrian ekoitziz. Arropak erdi prezioan alokatuko ditugu, egoera ekonomiko onean ez dauden familiek erosahalmena eduki dezaten. Alokairua aldi batekoa izango da eta guk hilabete bakoitzeko prezioa ipiniko dugu, salneurria jantzi motaren arabera aldatuko da.

Berokiei dagokienez, alokatzerako orduan hilabete bat 20€ eta bi hilabeteren behin prezioa pixkanaka igotzen joango gara, 5€. Berokiak hainbat erabilera izan ondoren, salmentan jarriko dugu erdi prezioan, berokiaren egoera eta hasierako prezioa kontutan hartuta, bere salneurria aldatu egingo da.

Jertseen kasuan, alokatzerako orduan hilabete bat 10€ eta bi hilabeteren behin prezio pixkanaka igotzen joango gara, 3€. Jertseak hainbat erabilera izan ondoren, salmentan jarriko dugu erdi prezioan, jertsearen egoera eta hasierako prezioa kontutan hartuta, bere salneurria aldatu egingo da.

Galtzei dagokienez, alokatzerako orduan hilabete bat 10€ eta bi hilabeteren behin prezio pixkanaka igotzen joango gara, 3€. Galtzek hainbat erabilera eduki ondoren, salmentan jarriko ditugu erdi prezioan, galtzen egoera eta hasierako prezioa kontutan hartuta, bere salneurria aldatu egingo da.

Kamiseten kasuan, alokatzerako orduan hilabete bat 5€ eta bi hilabeteren behin prezio pixkanaka igotzen joango gara, 2€. Kamisetek hainbat erabilera jasan ondoren, salmentan jarriko ditugu erdi prezioan, beraien egoera eta hasierako prezioa kontutan hartuta, bere salneurria aldatu egingo da.

Jostailuen kasuan, guk ez ditugu erosiko, bezeroek emango dizkigute. Alokatzeko aukera egongo da eta prezioa aldatu egingo da. Gailu elektronikoko batek mahai joku batek baino gehiago balioko du. Askotan gertatzen da, jostailuak erosi eta bi hilabeteren ondoren kajo batean gordetzea, zerbitzu honen bitartez hori ekidin nahi dugu.

Donazio asko egiten dituzten bezeroei, gure esker ona adierazteko, kupoak emango dizkiegu. Haurren adinaren arabera, jantzien prezioa aldatu egingo da.

